

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 2/2015

ERABAKIA, (...) ANDREAK, EUSKO JAURLARITZAKO (...) ZUZENDARIAK, EUSKO JAURLARITZAK LANGILEAK HAUTATZEKO DEITZEN DITUEN PROZESUETAN PARTE HARTZEA BIDEZKOA ZAION JAKITEKO EGIN ZUEN KONTSULTARI BURUZKOA

1.- Interesdunak, 2015eko urtarrilaren 30eko datuz, Etika Publikorako Batzorde honi galdetu zion ea etikoa ote zaion Eusko Jaurlaritzak zenbait lan-poltsa eguneratzeko 2014ko abenduaren 14an deitu zituen langile-hautapenerako prozesuetan parte hartzea. Zehazki, galdetu zuen prozesu horietan parte hartuz gero, urratu egingo ote duen, aldez edo moldez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an hartutako erabakiaren bidez onartu zen Etika eta Jokabide Kodea (EJK).

2.- Hau irizten du EJK-k egin zaion kontsulta horren gainean:

I. AURREKARIAK

1.- Agiri eta erabaki bat baino gehiagotan adierazi da Eusko Jaurlaritzak etika publikoaren gainean, eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzako kideen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten kargu politikoen jokabide etikoaren inguruan duen kezka. Horien artean, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko kargu publikoen eta aldi baterako langileen Etika eta Jokabide Kodea (EJK), 2013ko maiatzaren 28an onartua. Agiri hori egin zen, hain justu ere, “politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarren erakundeenganako konfiantza berreskuratzeko”.

2.- Gerora, Eusko Legebiltzarrak ekainaren 26ko 1/2014 Legea onartu du, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen (KPJKL). Lege horrek handitu egin du EJKren subjektu-eremua, hura bete beharrekoa izan dadin Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten kargu publiko, aldi baterako langile eta zuzendari guztientzat.

Legeren II. kapituluak “kargu publikodunen jokabideari” buruzko printzipio orokor batzuk azaltzen ditu. Printzipio horiek, osotasunetik eta gardentasunetik abiatuta (5. art.), hiru eremu hauetara zabaltzen dira: banakoen jokabidera (6. art.), kalitate instituzionalera (7. art.) eta herritarrekiko harremanera (8. art.).

3.- Legeak EPB bat sortu beharra arautu zuen printzipio orokor horien eta EJKn adierazten diren balioen, printzipioen eta jokabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta hau da lege horren 16.3 artikulua batzordeari ematen dizkion eskumenetako bat: “Etika eta Jokabide Kodea aplikatzearen inguruan kargu publikodunen eta parekoen kontsultei zein beste edozein instantziak egindako kontsultei irtenbidea ematea”.

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AUZIA, IRITZIA EMAN DEZAN

1.- Eusko Jaurlaritzak hautatze-prozesu batzuk deitu ditu lan-poltsak eratu eta/edo handitzeko, eta interesdunak, (...) zuzendariak, kontsulta egiten dio EPB honi, erabaki dezan deitu diren prozesuetan parte hartzen baldin badu urratu egingo ote duen, aldez edo moldez, Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun izendatua izan zenean atxiki zuen EJK.

2.- Kontsulta 2015eko urtarrilaren 30ean egin zen eta hautatze-prozesu horietan izena emateko epea 2014ko abenduaren 30ean amaitu zen; beraz, pentsatzekoa da, EPB honen iritzia eskatu zuenean egina zuela deialdian parte hartzeko eskaera eta, haren galdera, ondorioz, kontsultaren helburua ez dela instantzia aurkeztea zilegi zuen ala ez erabakitzea, eta bai argitzea instantzia horrek hautatze-prozesu horietan parte hartzeko ematen dion eskubidea egiaz erabili beharko lukeen ala ez erabiltzea.

Edonola ere, prozesu horietan parte hartzeari buruz egingo ditugun gogoetak berdin-berdin dira baliozkoak eskaera-instantzia aurkezteko gaiarentzat.

III. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

1.- Interesdunaren idatziak auzi bakarra planteatzen du, bateraezintasuna edo interesen gatazka bat izan daitekeela betetzen duen kargu publikoaren eta izaera soilik pribatua duen jarduera batean artean, hau da, kargu publikodunek eta haien parekoek lan egiten duten herri-administrazioek edo horien mendeko erakundeek langileak hautatzeko deitzen dituzten prozesuetan parte hartzeari dagokion auzia planteatzen du, baina gaia hori baino konplexuagoa da, banakoen jokabideari buruzko printzipioak eta kalitate instituzionalari dagozkion printzipioak baitaude jokoan auzi honetan.

2.- Hala ere, agerikoa dirudi, aurkeztu den auzia erabakitzeke, erabakigarriak izan behar dutela kontsultaren egileak EPB honi igorri dion idatzian adierazten dituen balioek eta printzipioek – bateraezintasunarena eta onestasunarena, azken hori balizko interes-gatazka bat gerta daitekeelako – ; izan ere, auzia ez da sortu karguaren berezko eginkizunak betetzeak sortutako dilema etiko baten ondorioz, ez da zuzenean karguarekin lotutako auzia, eta bai interesdunak, kargu hori betetzen duen denboran, egin dezakeen beste jarduera batek sortutakoa, eta, egitekotan, hertsiki pribatua izango den jarduera batean funtsatua izango dena.

3.- KPJKL legeak eta EJK kodeak ez dute, berariaz, ezertxo ere arautzen norberak betetzen duen karguari dagokion organigraman sartzen den administrazio edo erakunde publikoak deitutako hautatze-prozesu batean parte hartzearen eta kargu publiko horren egikaritzea bateratzeko aukerari buruz. Hala ere, bai batak zein besteak, zenbait balio eta printzipio arautzen dituzte, eta horietatik jokabide etikoa izateko jarraibide batzuk ondoriozta daitezke, erabilgarriak izan daitezkeenak aztertzen ari garen gaia erabakitzeke.

4.- EJK kodeak arautzen du “kudeaketaren erantzukizuna” deritzon printzipioa dela kargu publikodunek jarduera pribatuak egiteko duten bateraezintasunaren abiaburua, eta haren baitan kokatzen da “arduraldi osoa eta eskusiboaren” oinarrizko araua, 14 ataleko 2. puntuan adierazia: “Kargu publiko bat betetzen dutenek arduraldi osoa eta eskusiboa eman behar diote dagozkien funtzioak betetzeari, aplikatu beharreko legedian jasotakoaren arabera.”. KPJKL legearen III. kapitulura garamatza aplikatu beharrekoa den legediari egiten zaion igorpen horrek, kapitulu horrek ezartzen baitu “kargu publikodunen bateraezintasun araubidea”.

5.- KPJKL legearen kapitulu horrek adierazpen orokor bat du abiapuntu, eta hau esaten adierazpen horrek: “kargu publikodunek [...] arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak”. Hala ere, 12.1. artikulua urrats bat gehiago ematen du, eta debeku zorrotz bat eranstean dio oinarrizko arau horri, nahiz eta, funtsean, haren ondorio logikoa izan: “ezin izango dute aldi berean, ez berek ezta ordezen edo ahalordetze bidez, ezein postu, kargu, ordezkapen edo lanbiderik bete, ezta ezein merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoa zein pribatua edo norbere konturakoa edo inoren konturakoa izan” (12.1. art.).

6.- Hala ere, hona ekarri dugun arauak kargu publikoak betetzean bateraezinak izango diren jarduerak adierazteko ematen duen zerrendari begiratu laster bat emanda, berehala ikusten da merkataritza-, lanbide- eta industria-izaerako jarduerak direla bateraezinak, eta ez funtsezko eskubideen erabilerari dagozkionak –hori izanik auzi honetan gertatzen dena–, eta horien artean sartzen da “berdintasun-baldintzetan heltzea funtzio eta kargu publikoetara, legeek araututako baldintzetan” (Konstituzioko 23.2. artikulua).

7.- Bi arauak, EJK kodeak eta KPJKL legeak, agintzen dute kargu publikodunek “arduraldi osoa eta eskusiboa” izan behar dutela haien eginkizunak betetzean, hura baita herri-administrazioaren eta haren mendeko erakundeen efikazia bermatzeko bidea; izan ere, kargualdian jarduera ekonomiko pribatuak –merkataritza-, lanbide- edo industria-izaerakoak– egiten baldin badituzte, haien eginkizun publikoarekiko arreta gal dezakete eta murriztu egin daiteke haien inplikazioa, gutxitu haien errendimendua eta beheratu balio publikoaren sorkuntzari egiten dioten ekarpenaren kalitatea.

8.- Baina interesdunak, kasu honetan, ez du lanbide-, merkataritza- edo industria-izaerako jarduera ekonomiko bat egiteko asmorik; aitzitik, gerora jarraituko ez duen hautatze-prozesu batean parte hartzeko asmoa du –prozesu horren xedea da lan-poltsa bat osatzea, lanpostuak aldi baterako izaeraz betetzeko–. Adierazi dugun moduan, Konstituzioan araututako oinarrizko eskubide bat erabiliko luke jarduera hori eginez gero. KPJKL legeak berariaz baimentzen die kargu publikodunei “norberaren edo familiaren administratze hutsa” (14.1a art.) egiteko aukera, eta ez dirudi arrazoizkoa pentsatzea arrazoi gutxiago dagoenik haiei konstituzio-eskubide baten erabilpena baimentzeko, agerikoa baita haien ondare zibikoaren baitako eskubidea dela, komunitate politiko bateko kide diren aldetik. Herritar guztiek dute kargu eta enplegu publikoetara heltzeko eskubidea, eta ordenamendu juridikoak haren maila gorenean arautu du eskubide hori. Horrenbestez, herritar guztien ondare pertsonalaren baitan sartzen

da herri-administrazioen hautatze-prozesuetan parte hartzeko eskubidea, ondare hori pertsonaren ondasun eta eskubideen multzoa den aldetik.

10.- Interes-gatazkarik ote dagoen aztertzen jarrita, gogoratu beharrekoa da, lehenik eta behin, “kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean” sortzen direla interes-gatazka. Hori arautzen du, izan ere, EJK kodeko 11.2. artikulua. Antzeko formulazioa darabil KPJKL legeak 9. artikuluan; izan ere, adierazten du egoeran honetan sortzen dela interes-gatazka: “lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran”.

11.- Irakurtzearekin batera ikusten da bi testuetan interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunek “erabakietan esku hartzean” (EJK) eta “erabakietan parte hartu behar dutenean” (KPJKL), baldin eta egoera jakin batean batean aldi berean zertzen baldin badira interes orokorrak, betetzen den karguak berezko dituenak, eta interes pribatuak, kargua betetzen dituenarenak, haren familiarenak edo hirugarren pertsonenak. Interes-gatazka sortzeko, beraz, bi baldintza hauek bete behar dira:

- a) Erabaki batean parte hartu behar du kargu publikodunak
- b) Interes publikoaren eta interes pribatu baten arteko talka gertatu behar du erabaki horretan.

12.- Aztertzen ari garen kasu honetan, ez da betetzen interes-gatazka bat izateko bete behar den bigarren baldintza: kargu publikodunak zuzenean parte hartzea aldi berean interes publikoak eta pribatuak zertzen dituen gairen bati buruzko “erabakietan”.

13.- Egia da interesduna (...) Zuzendaritzako titularra dela, (...) Sailean duena bere kokapen organikoa. Interesdunak parte hartu nahi duen hautatze-prozesua, aitzitik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak kudeatuko du, hau da, Herri Administrazio eta Justizia Sailari atxikitako erakunde autonomiadun batek. Bereizketa argia dago beraz kontsulta egin duen pertsonak betetzen duen kargu publikoaren eta pertsona horrek parte hartu nahi duen hautatze-prozesuak tramitatu eta ebatzi behar dituen organoaren artean, eta horrek agerian uzten du interesdunak ez duela batere itzalik eta eragin-gaitasunik lan-poltsen deialdi publikoa kudeatu behar duten administrazio-organo eta pertsonetikiko.

14.- Horrez gainera, kontuan izan behar da kontsulta egin duen pertsonak betetzen duen kargu publikoaren eginkizunek ez dutela lotura materialik langileak hartzeko hautatze-prozesuak deitu, kudeatu eta ebatziko dituen administrazio-jarduerekin; beraz, agerikoa dirudi, aztertzen ari garen kasu honetan, ez direla betetzen interes-gatazka bat izateko behar diren izatezko baldintzak. Izan ere, interesdunak, kargu publikoduna den aldetik bete behar dituen

eginkizunak betetzean, ez du inoiz ere esku-hartze zuzen edo zeharkakorik izango parte hartu nahi duen hautatze-prozesuak izapidetu eta ebazteko erabakietan.

15.- Baztertu beharrekoa da, beraz, aztertzen ari garen egoera honetan legezko bateraezintasunik edo interes-gatazkarik ematen denik –eta, ondorioz, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak ere ez direla erasaten esan dezakegu–, eta orain aztertu behar da kontsulta egin duen pertsonak, parte hartu nahi duen hautatze-prozesuetan parte hartzen baldin badu, urratu egiten ote dituen osotasunari dagozkion jokabideak eta portaerak. Hau da osotasunaren definizioa KPJKL legean: “kargu publikodunek eta parekatutakoek atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea onestasanari, inpartzialtasunari, objektibotasunari eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetuari” (5.1. art.). Bestetik, honela definitzen du EJK kodeak balio hori: “kargu publikodunek eta parekatutakoek honako hauei atxikimendu sistematiko eta iraunkorra izatea da: onestasan-, inpartzialtasun-, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioei, esparru juridikoaren errespetuari eta, zer diren gorabehera, ingurune publiko horretan esku hartzen duten edo harekin harremana duten pertsona guztiei; bestetik, beren eskumeneko gaien kudeaketan erantzukizun-parametroen arabera jokatzeko da” (4.1.1. ata.).

16.- EJK kodeak adierazten du, osotasunaren edo integritatearen balioa betetzeko, “faboritismo-nahiaren susmorik” piztu gabe jokatu behar dela, ez direla erabili behar “postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat” eta ez dela haren jarraibideen mende lan egiten duten kargu eta enplegatu publikoengan eragin behar interes publikotik alden daitezen eta “zuzenean edo zeharka etekina atera dezaten beraientzat edo beste batzuentzat” (6. atala, 1., 2. eta 3. puntuak).

17.- Gure iritzian, aztertzen ari garen egoeran ez da osotasunaren printzipioa urratzen, kontsultaren xede den jokabidea ez delako kargu publikoaren eginkizunak betetzeko eremuan egiten; izan ere, eremu horretan suma daitezke faboritismoaren zantzuak edo kargu publikoren batek hari legez eman zaizkion eskumenen erabilera maulazkoa egitearen arriskua, interes orokorra baztertu eta norberaren edo beste pertsona batzuen interes partikularren alde jokatzeko. Kontsultan adierazten diren hautatze-prozesuetan parte hartzen baldin badu interesdunak, ez du zuzendari moduan parte hartuko, eta bai izaera pertsonalean, Konstituzioak herritar guztiei berdintasunean aitortzen diren konstituzio-eskubide bat erabiliz.

18.- Berariaz aztertzen baldin badugu “postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka norberarentzat abantailak lortzeko” aprobetxatzearen arriskua, berriro gogoratu behar dugu kontsultaren egileak, betetzen duen kargutik, ez duela, alderdi organiko eta materialetik, parte hartu nahi duen hautatze-prozesuen gauzatzean eragiteko aukerarik. Osotasunaren balioa da, bestalde, kargu publikodunen jardun-modua zuzendu behar duen balioa haien eginkizunak betetzen ari direnean. Eta kasu honetan, lehen adierazi den moduan, jarduera partikular bat egingo litzateke, oinarritzko eskubide bat erabiltzeko.

19.- Aztertzen ari garen egoerak EJK kodeko beste printzipio bat erasan dezake, eredugarritasunarena. Hau arautzen du du kodeko 5.2.6. atalak printzipio horri buruz: “kargu publikodun eta parekatuak, bereziki gobernu- edo erakunde-egituretan postu nagusiren bat betetzen badute, erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsoneri ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez dute ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, txikiena izanda ere, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko”.

20.- EJK kodeak eredugarritasunaren printzipioaren baitan onesten eta debekatzen dituen jokabideak (15. atala) kargu publikodunaren eginkizunen eremukoak dira –horren salbuespena da 5. puntuak adierazten duen jokabidea, baina kasu honetan ez da horrelakorik gertatu–, baina, adierazten ari garen moduan, ez da halakorik gertatzen kontsulta honek adierazten duen egoeran. Arauak, kargu publikoak betetzean izan behar diren jokabideak zehaztearekin batera, berariaz ezartzen ditu honako debeku hauek:

- a) Ezingo dituzte kargu organikoak zein kudeaketa-karguak bete fundazio, elkarte nahiz bestelako entitateetan, haien helburuak eta funtzioen xede diren interes publikoak aurkakoak izatea litekeena baldin bada, edota interesen arteko gatazka sor badaiteke.
- b) Ezin dute, zuzenean zein zeharka, nolabaiteko ordainsari edo konpentsazio ekonomikoa dakarten irratiko hizketaldietan edo telebistako eztabaidetan parte hartu.
- c) Ezin dute parte hartu hedabideetako eztabaidetan eta gogoeta-prozesuetan edo ekitaldi publikoetan gobernuaren berezko jarreretatik aldentzeko; hala ere, salbuespenez, horietan parte har dezakete funtsezkoak ez diren iritziak emateko eta adierazten badute iritsi horiek hertsiki pertsonalak direla eta ez dutela gobernuaren politikarekin zerikusirik.
- d) Ezin dute, gobernuaren edo haien goragoko kargu publikodunaren baimenik gabe, hedabideetan parte hartu, salbu-eta eduki neutraleko elkarrizketak edo erreportajeak egiteko.
- e) Ez dute inolako ordainsaririk onartu behar betetzen duten karguaren baitan liburutan, aldizkaritan, egunkaritan eta beste edozein hedabidetan ekarpenak egiteagatik, baldin eta ekarpen horiek karguko funtzioak betetzeari lotuta badaude.

Ikus daitekeen moduan, langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzea ez da EJK kodeak eredugarritasunaren jardun-esparruan berariaz debekatzen duen jardueretako bat.

21.- Bikaintasunaren balioa arautzen du EJK kodeko 4.1.2. atalak, eta hauxe adierazten du: “bikaintasun-balioak berekin dakar inplikatzeko eta etengabe ahalegintzea beti hobetzeko, eta, horren ondorioz, herritarren eskakizunak guztiz betetzeko erabaki publikoetan eta ematen diren zerbitzu publikoetan, eraginkortasunez jokatuz eta bat etorraziz erakundearen lan egiten duten pertsonak helburuetan, hala nola teknologiei eta prozesuei dagokienez”.

Kargua betetzean egin beharrekoak dira, berriro ere, EJK kodeak 7. atalean bikaintasunaren balioari buruz adierazten dituen jokabideak eta portaerak, eta, kasu honetan, inplikazio handiagoa, etengabeko ahalegina eta kalitatearen hobekuntza dute xede jokabide horiek.

22.- Kargu publikodunen jarrera eta jokabide positiboak arautzen dituzte 7. ataleko 5 puntuek –“bete beharko ditu”; “ematea izan behar ditu xede”; “lortzea izango dute helburu”; “garatu beharko ditu”; “konpromisoa hartuko du”–, baina ez dute bikaintasunarekin bateraezina diren jardueren zerrendarik osatzen. Eta, noski, arau horiek ez dute inon ere esaten hautatze-prozesu batean parte hartzea bateraezina denik kargu publiko bat betetzen duen pertsona bati haren eginkizunak betetzean eskatu behar zaion bikaintasunarekin.

23.- Hala ere, balio hori urra daiteke aztertzen ari garen egoera honetan, baldin eta, parte hartzeko inskribatu den hautatze-prozesuan parte hartzeko, prestakuntzako eta ikasketako ahalegin luzea egin behar baldin badu kontsultaren egileak eta ahalegin horrek eragotzi egingo baldin badio betetzen duen kargu publiko hori EJK kodeak 7. ataleko 1. puntuan agintzen duen moduan betetzea, hau da “bikaintasun-jokaeretan oinarrituta” eta “etengabe hobetzen ahaleginduz”. Alde horretatik, gogoratu behar da kargu publikodunen bateraezintasun-erregimena ezartzen duten jarraibide etikoen eta arau juridikoen helburua dela –ez helburu bakarra, baina bai oinarritzak– haiek betetzen dituzten erantzukizun publikoko eginkizunak osotasunean egitea eta haiek bestelako interesen interferentziarik gabe betetzea.

24.- Hori horrela izanda, ondorioztatu behar da kontsultaren egileak, kargu eta funtzio publikoak betetzeko konstituzio-eskubidea erabiltzean, behar bezala bete gabe uzten baldin baditu betetzekoak dituen funtzio publikoak eta horrek txikitu egiten baldin baditu betetzen duen kargu publikoarekiko inplikazioa eta hari dagozkion eginkizunak eta betebeharrak betetzean egin behar duen ahalegina –bai hautatze-prozesuetan ebaluatuko diren gaiak prestatzeko lanak interferentziak sortzen dituelako bere jardun publikoan, bai prozesuetan egingo diren hautatze-probak egitera joan behar duelako–, urratu egin ditzake bikaintasunarekin lotutako jokabide-jarraibideak, eta, oro har, kargu publikoak betetzen dituztenek haien funtzioak "inplikazio handiz" eta "etengabeko ahaleginez" betetzeko betebeharrari dagozkion balio eta printzipioekin lotutakoak.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk, aho batez, hartu duen

ERABAKIA:

Lehena.- Interesdunak, bere kontsultan adierazten dituen hautatze-prozesuetan parte hartzen baldin badu, ez du urratuko kargu publikoak betetzen dituztenek haiek “arduraldi osoz eta eskusiboz” betetzeko printzipioa eta ez du urratuko bateraezintasun-erregimena, hautatze-

prozesu batean parte hartzean ez duelako lanbide-, merkataritza- edo industria-izaerako jarduera ekonomikorik egingo, eta Konstituzioaren 23.2. artikuluan arautzen den oinarrizko eskubide bat, kargu eta funtzio publikoetara heltzekoa, egikarituko duelako.

Bigarrena.- Bereizketa argia dago kontsulta egin duen pertsonak betetzen duen kargu publikoaren eta pertsona horrek parte hartu nahi duen hautatze-prozesuak tramitatu eta ebatzi behar dituen organoaren artean, eta, horrez gainera, betetzekoak dituen eginkizunek – guztiak ere (...) lotutakoak– ez dute lotura materialik langileak hartzeko deitzen diren hautatze-prozesuak deitu, kudeatu eta ebazteko administrazio-jarduerekin, eta, horrenbestez, interesdunak ez du interes-gatazka bat izango hark igorritako idatzian adierazten dituen hautatze-prozesuetan parte hartzen baldin badu.

Hirugarrena.- Era berean, egindako kontsultan adierazi dituen hautatze-prozesuetan parte hartzen baldin badu, interesdunak ez ditu urratuko osotasun edo integritateari, eredugarritasunari eta bikaintasunari dagozkien balioak, printzipioak eta jokabideak.

Laugarrena.- Funtzio eta kargu publikoetara heltzeko konstituzio-eskubidea erabiltzean, kontsultaren egileak behar bezala bete gabe uzten baldin baditu betetzekoak dituen funtzio publikoak eta horrek txikitu egiten baldin baditu betetzen duen kargu publikoarekiko inplikazioa eta hari dagozkion eginkizunak eta betebeharrak betetzean egin behar duen ahalegina –bai hautatze-prozesuetan ebaluatuko diren gaiak prestatzeko lanak interferentziak sortzen dituelako bere jardun publikoan, bai prozesuetan egingo diren hautatze-probak egitera joan behar duelako–, urratu egin ditzake bikaintasunarekin lotutako jokabide-jarraibideak, eta, oro har, kargu publikoak betetzen dituztenek haien funtzioak "inplikazio handiz" eta "etengabeko ahaleginez" betetzeko betebeharrari dagozkion balio eta printzipioekin lotutakoak.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2015eko otsailaren 24an